

# Noqua!!

H A M A B O T E K A R I A

1999ko otsailaren 12a IV.urtea

Usurbil, 60. Zenbakia



**Mertxe Aizpurua:  
“mirari bat izan da”**



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Inigo!** Otsailaren 7an 7 urte bete zenituen eta ederki ospatu genuen. Muxu pila bat Andoniren partez. Etxekoak.




Otsailaren 6an zure urtebetetze eguna izan zela eta zorionak eman nahi dizkizugu. Zorionak **Mikel!** Etxekoen partez.



Zorionak **Alex!** Otsailaren 20an 6 urte beteko dituzunez zorionik beroenak eman nahi dizkizugu maifasun osoz zure guraso eta anaiak.



Zorionak **Iban!** Otsailaren 19an 3 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat aita, ama eta Iratiren partez.



Nork betetzen ditu otsailaren 24an zazpi urte? **Unai**, ea ospatzeko bizkotxo goxo bat egiten duzun! Muxu haundi bat etxekoen partez.



Urte askoan **Kandelari!** Otsailaren 2an izan zen zure urtebetetze eguna. Zuri esker ikusten dugu gure ermita beti hain polita. Zorionak! Sasoi onean eta orain bezain alai jarraitu. Betiko lagunak.



Zorionak **Paki!** Badakigu otsailaren 4an pastel eta txanpainarekin ospatu genuela, baina ea hurrengo urterako zertxobait aldatzen duzun. Zorionak eta muxu bat etxekoen partez.



Orain arte bezain alai eta muxukari jarrai dezazun, zorionik beroenak etxeko ttikiari, **Mider Zubelzu!** Otsailaren 18an beteko dituzu ja. Etxekoak.



Zorionak izeba **Salo!** Otsailaren 3an, San Blas egunean izan zen zure urtebetetze eguna. Etxeko giroan ederki ospatu genuen. Muxu haundi bat eman nahi dizugu. Jon, Eneko eta Leire zure ilobak.



Badakizu, **Garazi**, datorren otsailaren 17an lau kandela itzaltzea tokatzen zaizu. Baina gorde ezazu bat **Mikellentz**, 25ean bere txanda da eta. Zorionak bioi familiaren partetik.



**Endika Berradrek** urtarilaren 9an egin zituen 11 urte, **Julenek** berriz, otsailaren 3an 5 urte. Gure etxeko mutiko eder hauei, urte askotan! Guraso, aiton-amon, etxeko guztiak eta Freddi.



Zorionak **Julen!** Gure etxeko polittak 12 urte egingo ditu otsailaren 15ean. Zurekin ospatzeko irrikitan gaude. Non ordainduko dituzu pin-txoak eta gorria? Gurasoen partez muxu haundi bat.



Zorionak **Aritz Aranburu!** Otsailaren 19an 8 urte beteko dituzunez egun on bat pasa dezazula egun horretan. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.

Hurrengo alea: otsailaren 26a

Agurrak ekartzeko epea: otsailaren 19a

## Hildakoak



1999-01-24  
**Segunda Lasa Enparan**  
79 urte  
Kalezar



1999-01-31  
**Julio Mujika Salsamendi**  
81 urte  
Urdaiaga



1999-01-29  
**Pedro M<sup>o</sup> Alkorta Sarriegi**  
43 urte  
Kalezar



1999-02-04  
**Antonia Izueteta Kortajarena**  
71 urte  
Santuenea

## Jaiotzak

**Ane Irazabal Esnaola**  
(1999-01-27)  
Muna Lurra

## Bai, esan?

- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialde ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

- 37 19 51
- 36 11 12
- 36 20 13
- 36 12 16
- 36 38 95
- 37 24 98
- 37 15 94
- 37 20 01

- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkartea egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- **Noaual!** aldizkaria

- 36 21 78
- 46 46 22
- 27 22 22
- 37 32 28
- 37 17 51
- 36 63 40
- 47 09 76
- 36 03 21



# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

## Zuzendaria

Olatz Altuna

## Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaoa Arnáiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain eta Arantxa Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

## Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Idoina Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoina Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
**16.30-18.30 astegunetan**



## A eredia desagertu

**Niko Bengoetxea**

**EHEko kidea**

**D**uela gutxi izan da Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazio epea, eta urtero bezala ereduaren aukera egin behar izan dute gurasoek. Euskal Herrian Euskaraz erakundetik A ereduaren iruzurra ebidentzian jarri da eta baita horren aurkako kanpaina bideratu ere. Sektore espainolistek eskuak burura eramaten dituzte eta A ereduaren desagertzea eskatzea inposaketa moduan hartzen dute. Beren burua demokrata eta tolerantetzat hartzen duten horiek milaka haurrei euskararen jabetza izateko eskubidea ukatzen diete, A ereduak ez baititu ikasleak euskalduntzen, nahiz eta eskaintza hori egiterakoan ikaslea EAEan ofizialak diren bi hizkuntzak menperatzeko gai dela esan: IRUZURRA!

Eredu atzeritar hori, atzeritarra bai, euskararen ikasketa atzerriko hizkuntza moduan egiten baita, interes politiko espainiarzaleen ondorioz dago indarrean. Gure herrian politiko batzuen interes pertsonalak herriaren interesen gainetik ipintzen ikusten ohituta gaude, baina zer eskubide dute politikoei haur bati euskararen jabetza ukatzeko? PP, PSOE, UA, UPN, PSF, RPR... alderdi politiko horietako buruzagiek behin eta berriz erasotu dute euskara, erdara inposatuz, zer eskubide dute HIZKUNTZA BAT ERASOTZEKO? Beti izan dute pentsamendu inperialista, erdara inposatu dute, euskara baztertu, erasotu eta herriaren erantzunagatik ez balitz, dagoeneko euskara hilik goke.

Euskararen aurka edozer egin eta esan dute, eta ez da frankismora soilik begiratu behar, pasa den urteko erasoak PPK diseinatu duen estrategia batean kokatu behar ditugu, ikastolak, euskaltegiak, aldizkariak... erasotu ziren. "Demokrata" horiek ez dute lotsarik!

Gure herriarekiko zor historikoa dago, mendeetan zehar gure kultura, hizkuntza, herria... zapalduak izan dira, eta

egindako kalteak ordaintzen hasi beharko dute, lehenik eta behin euskararen herriaren lurraldetasun eskubidea onartu beharko dute, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan ORAIN! Eta euskara ofiziala den zonaldeetan ofizialtasun erreala, euskaraz bizitzeko eskubidea behin eta berriz urratua; unibertsitatean, epaitegietan, osakidetzan, lantokietan...

Beste pauso garrantzitsu bat A ereduaren desagertzea da, ezin dugu onartu euskal analfabetoak sortzen jarraitzerik, eskubidea dute euskara ikasteko, erabaki politikoen ondorioz inposatu dena erabaki politikoen bitartez ezabatu beharko da. Eta hori ez da inposaketa, eskubidea eta arrazoia gure alde daude, eta A ereduaren aurkako borrokak zentzua du Euskal Herri osoan (Nafarroa hegoaldean eta iparraldean izan ezik noski, bertan euskaldunek ez baitute inolako eskubiderik). Catalunyan ezabatu da A eredia, Euskal Herrian noiz arte itxaron behar dugu? Itxaroten gelditzen bagara ez dugu inoiz lortuko, nire ustez borondate oneko euskaltzale askoren akats garrantzitsu da hori, denborarekin berez lortuko dela A eredia desagertzea pentsatzen dute, baina frogatua dago euskararen alde pauso tinkorik ematen ez bada, denborarekin desagertzeko bidean dagoela gure amahizkuntza. Horretarako Ipar Euskal Herrira jo besterik ez dugu, hain gertu eta hain bazterturik daukagun Iparraldera, urtetik urtera euskararen egoerak okerrera egin du, baina orain Euskal Departamentuaren eta euskararen ofizialtasunaren aldeko jarrera eta borroka aurrerantz doa, eta erabaki politikorik hartu ezean gureak egin du.

Eskuak patrikatik atera eta hasi gaitzen A ereduaren desgertze bidean, eta Euskal Herri osoan ofizialtasun erreala baten alde lanean.

**Azala: Mertxe Aizpurua GARAKo zuzendaria.**



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**Inauterietako jaialdia**

Idatzi honen bidez, joan den urtean ikasle ohi batzuek inauteri festaren antolaketari buruz azaldu zuten kexari erantzun nahi diogu:

Inauteri egunean ikastolan bi festa antolatzen dira:

- Festa batean HH, LH, DBH1 eta DBH2 mailakoek emanaldi publiko bat prestatzen dute, herriko frontoian edo kiroldegian. Emanaldi hau joan nahi duen edonorentzat irekia da. Gai baten inguruan antolatzen da eta ikasleak, jantziak, musika eta koreografia denbora luzez prestatzen aritzen dira.

- Bigarren festa arratsaldean egiten da eta DBHko ikasleek prestatzen dute, barruko ikasle eta irakasleentzat. Festa honek ez du prestaketa berezirik eta oso espontaneoa izaten da. Helburua ere oso desberdina du: bertako ikasleak

giro atsegin eta lasai batean ondo pasatzea besterik gabe.

Urte batean edo bestean guraso eta ikasle ohi batzuk sartu badira, ez da guk etortzera gonbidatu ditugulako, baizik eta momentu horretan gure antolaketa kontuan eduki ez dutelako.

Beraz, ez dugu uste honegatik inork minduta sentitu behar duenik, eta gure festa eta antolaketak errespetatzea besterik ez genuke eskatuko, hauxe baita irakasleon nahia.

**Udarregi ikastola**

**Erredakzio kontseiluaren oharra**

Ika-mika atal honen inguruan zenbait azalpen eman nahi genituzke gauzak gehi-gora joan baino lehen. Bukeraren dagoen ohar gris horrek argi eta garbi azaltzen duen moduan edozeini irekia dago atal hau. Kexaren bat azaltze-

ko, ekintzaren bat zoriontzeko... Ika-mika mila gauzetarako zuen eskura dagoen atala izatea nahi dugu.

Hasi berria dugun urte berri honetan bi idatzi anonimo jaso ditugu, baina ez ditugu argitaratu. Zergatik? Erantzuna behoko oharrean duzue: idatzia argitaratzeko **Noaua!**ko erredakzio kontseiluko norbaitek nork idatzia den jakin behar du. Nahiz eta **Noaua!**n ezizenarekin azal daitekeen, argitaratu aurretik erredakzio kontseiluak nork idatzia den jakin behar du derrigorrez.

**Erredakzio kontseilua**

**Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez Noaua!k beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak Noaua!ra bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.**



Ikusten al dituzue kotxe hauek? Badakizue non dauden, ezta? Honela aurkitu genuen otsaileko egun hotz batean Joxe Martin Sagardia plaza. Udaletxean bilera garrantzitsuren bat zegoela pentsa daiteke, baina ez da horrela. Kotxea uzteko lekurik aurkitzen ez eta plazan utzi zituzten kotxeak. Eskerrak udaltzain nafarrak ez zituen kotxe hauek ikusi bestela...

**Telesforo Ardoak**



**Zure mahairako egokienak**

Kale Nagusia, 25  
Telf. 943 36 12 20



**TABERNA**  
**"GYRE PRESOKAK**



**HERRIAN BEHAR DITVGV"**

Irazu kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17


**TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA**

**Buru-azalaren zainketa Ile-apainketa**

Etxebeste, 3 Tel. 943 37 16 85



# Berriketan



## Santos Iruretagoiena Bereziartua

Orain dela bi urte Santos hil zela zabaldu zen Urdaiaga aldean. Zorionez, bizi-bizirik aurkitu dugu orain dela 62 urte jaio zen leku berberean: San Estebango Gilisasti Haundi baserrian.



**Orain kotxeak eta autobusak gora eta behera ibiltzen dira. Zuek garai batean ez zenuten horrelakorik ezta?**

Eskolara Usurbila joaten ginen egunero, goizean 9.00etatik 12.30etara eta arratsaldean 14.00etatik 17.00etara, frontoi ondoko etxean ibiltzen ginen. Garai hartan gu ez ginen kotxez joaten, oinez bai abiada bizian! Deskuidatu ezkerreko alpagatak bizkarrean hartuta joaten ginen orain eskailerak dauden hortatik mendian behera.

**Eskolan ez zenituen urte asko egingo zuk.**

12 urte arte. Komunio haundia egin nuenean aitaren ondora lanera, "a trabajar". Hartu idiak eta goldea eta hara eta hona ibilia naiz txiki-txikitatik. Gero 16 urterekin lasin hasi nintzen lanean. Han bi urte egin nituen eta gero Ingemarren lanean ibilia naiz 37 urtetan.

**Soldaduska egin zenuen?**

Bai horixe, 21 urterekin joan nintzen soldaduskara. Afrikara joan behar izan nuen, Marruekoetik Tetuan-era. 18 hilabete pasa nituen baserrian egiten nuen lan berdinean: ganadua zaintzen. Behiak, txekorrak, hauen nobioak (xexenak), ardiak... denetik zaindu nituen "jura de bandera"ren ondoren. Gaur egun haruntz gustora joango nintzateke.

**Soldaduskatik etorri eta berriz ere lanera.**

Egunik galdu gabe Ingemarrera. Goizean sartu eta arratsaldean etxeratzen nintzen. Etxeratzean, berriz, baserrian lagundu behar. Orain ez daukagu ganadurik, baina orduan 12 buru inguru genituen eta handik eta hemendik beti izaten zen lanen bat. Ixil ixilik lan asko egin behar izaten genuen, ez oraingo gazteak bezala.

**Hala ere gaur egungo gazteen moduan festetara joango zineten ezta?**

Abuztuko San Estebanak, Santixabelak eta San Praixkuak izaten ziren gure festak. Orain baino sasoi hobea nuen orduan eta dantza egiten genuen gogotik.

**Goizaldera arte?**

Batere etxera etorri gabe lanera igual zuzenean! Baina oso gutxitan, batez ere San Estebanetan. Ohera sartu ezkerreko zaharrek laster botatzen zuten orrua!

**Zer egiten duzu orain egun normal batean?**

Ardi eta oilo batzuk badauzkat eta bale, nahikoak ditut. Egunean zehar paseatzen ibiltzea gustatzen zait, San Estebanera, behe aldera... hor ibiltzen naiz. Lehen Andatzara ere askotan joaten nintzen, egunero huts egin gabe. Hartu idi pare, sega eta segapotoa eta haire, iñudea ebakitzera! Oraingo gazteei esan behar orain! Orain lasai-lasai egoten naiz.

**Idi pare zenuten baserrian?**

Idi pare eta goldearekin baserri-baserri ibiltzen ginen. Deitzen zuten tokira joaten ginen, Aginagara, Txokoldera... dirua ateratzera zera! Bide zaharrean gurdiarekin firriki-tarraka buelta ugari emana naiz.

**Beste garai batzuk ziren haiek.**

Beste garai batzuk ziren, baina orduan baino okerrago bizi da jendea orain. Jaleo gehiago, txikizioa gehiago... garai haiek nahiago ditut nik. Oraingo janak adibidez ez du ezer ere balio. Konpuostoarekin egindako haragia eta zikina...

**Josu Aranberri**

## P A T R I

### J A T E T X E A

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

# MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

## %50eko beherapenak

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

## PORTULARRUME



### ITURGINDEGIA BAINUKO ALTZARIAK




Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



# TXOKOALDE

## Kalabaza tripontzia

**A**urreko batean, Zarautzen kalabaza haundi bat aurkitu zutela agertu zen egunkari batean. Ez dakit zein zen haren



pisua, ezta zenbat neurtzen zuen ere. Hala ere, hoietako kalabazak eduki izan ditugu gure baratzetan. Duela gutxi, adibidez, kalabaza haundi horietako bat agertu zen gure baratzan. Ez zen Estatu Batuetako pelikuletan agertu ohi diren boro-bil horietakoa, luze-luzea baizik, 70 zm. inguru zuen luzeran eta pisatu ez bage-nuen ere nahikoa lan eman

zuen garajera ekartzerakoan.

Gaiaz erabat aldatuta ispilu batetaz hitz egingo dut segidan. Orain dela urtebete inguru Irabia aldera joateko bide bakarra utzi zuten. Trenbidea sareaz babestu ondoren, ibilgailuek ezin dute lehengo bidetik pasa.

Trenbidea zeharkatu eta Illunbe ondotik pasatzen da Irabira joateko bidea, eta orain, kotxerik badatorren edo ez ikusi ahal izateko, ispilu bat jarri dute Illunbe aurrean. Ea ba ispilu honekin bide horretatik ateratzerakoan sortzen diren arazoak konpontzen diren.

Olatz Goenaga



# KALEBERRI

## Erakusketa ibiltaria

Itziar Aizpurua




**I**nauteriak gainean ditugu, urtea azkar pasatzen ari denaren seinale. Gabonetako betekadetatik hustutzen hasi baino lehen inauterietako jantzia bilatzen hasi behar, hau da marka hau! Gainera, hor non-bait irakurri dudanez, aurten gaia librea omen da. Lehen ere batzuk nahi duguna jazten dugu bai! Hala ere, juergatxo-ren bat botatzeko prest egoten gara beti.

Inauteriak alde batera utzi eta erakusketa batetaz hitz egitera noa. Otsailaren 16tik 19ra bitartean "Sartu mentura zoragarri honetara" erakusketa ibiltaria ikusi ahal izango da gure

herrian. Egun horietan, eta arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara Udarregi ikastolan (berrian) ikusgai egongo da Amerika eta Afrikako herrien bizimodu desberdinak erakusten dituen erakusketa.

Euskal misioen 50. urteurrena ospatzeko antolatu dute erakusketa ibiltari hau. Umeei zuzendutako erakusketa da batez ere, eta horregatik Udarregi ikastolako urteek Angola, Ruanda eta Ekuadorreko

umeen egun normal bat biziko dute. Hala ere, helduagoek ere zabalik izango dute erakusketa aurrez aipatutako egun eta orduetan.






# ATXEGALDE

## Urdin, orlegi, hori...

**G**aur egun, Euskal Herriko txoko gehienetan material ezberdinak birziklatzeko ontziak ikusten ohituak gaude eta nabarmena da geroz eta jende gehiagok parte hartzen duela. Etxean ditugun kartoiak, paperak, kristalezko ontziak, eta abar. zakarrontzira bota ordez, ontzi urdinetan (papera)



eta orlegietan (kristala) bota ditzakegu inolako arazorik gabe. Eta hori koloreko ontzietan berriz, pila zaharrak.

Herri guztian bezala, Atxegalden ere kristala, papera eta pilak birziklatzeko ontziak badaude, Goiko eta Alperroburu kaleetan zehar hain zuzen ere. Auzoa eraberritu da eta ontzi hauentzat ere toki bereziak egin dituzte. Toki hauek txukun geratu diren arren, ontzi hauen kokapenean arazo bat dago: hondakinak botatzeko alde bakarra geratzen da erabilgarri. Ikusi besterik ez duzue ontzi urdinak aurrealdetik betetzen direnean zer gertatzen

Zaloa Arnaiz



den. Paperak zein kristalak aurrealdetik lasai bota badaitzke ere, atzealdera joateko ahalegin bereziak egin behar dira, belarraren gainetik pasaz (lokatzetan euria egiten duenean). Ondorioz, ontziak beti aurrealdetik betetzen dira eta gainezka egiten dutenean ingurunea kartoi zaharrez betetzen da haize eta euriaren tentaldirako.

Ontzi hauek gure ingurunea laguntzeko badira, leku hauek hobeto antolatu behar dira, guztiok lasai eta inolako eragozpenik gabe material ezberdinak dagozkien lekura botatzeko.

# KALEZAR

## GARAREN zuzendari kalezartarra

**E**rrekalden jaio eta Kalezarren hazi eta hezitako emakume bati zorionik beroenak eman beharrean nago otsaileko lehenengo ale honetan.

Berdintasun bolara honetan, eta azkenengo gertakizunak kontuan hartuta, ez da erraza baina bai aipatzekoa emakumeen igoera. Hori da egin beharrekoa, pixkanaka-pixkanaka gainditu, ez esan bakarrik.

### Mari Mertxe Aizpuruari

buruz ari naiz hitz egiten. Kabitik aldegin arte hemen ibili zen, beste neska asko bezalaxe, Kalezarko belardietan



Pedro Mari Matxain



haruntz eta honuntz besteekin jolasean. Orain dagoen lekuan ikusiko genuela nork pentsatuko zuen garai hartan?

Gaur egun ez da erraza egunkari baten zuzendaria izatea eta pentsatzen dut ez zela erraza izango orain dagoen lekura iristea. Oztopo ugari gainditu beharrean aurkituko zen askotan, baina hortxe dago orain, GARA egunkari berriaren zuzendari bezala.

GARako zuzendaria beraz, kalezartarra dugu eta entzun dudanez egunkari berri hau Usurbilen inprimatzen omen dute, tren geltoki inguruko lokal batean.



# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Lerro hauek bete nahian...

**A**zterketak! horixe da ikasleok urte sasoi honetan gehien gorrotatzen dugun hitza.

Urte guztian zehar ezer ez egitearen fama izan ohi dugu ikasleok, baina oraingo honetan buru belarri gabiltza liburu eta apunte artean. Batzuk letra artean, beste batzuk zenbaki artean, beste batzuk... baina denak, azken finean, otsaileko azterketetan murgilduta

Hala ere, kezka guztiez ahazteko egun paregabeak ditugu gainean: Inauteriak.

Askok eta askok ja mozorroa prest izango duzue janzteko irrikitan, baina beste askok, nire

antzer, azkenengo momentu arte itxaroten dugu zer jantzi ez dakigula, bazter guztiak mareatuz.

Ja burutik pasako zitzaizuen irakurle orori honek zerikusirik baduen gure auzoarekin. Egia esan, haundirik ez. Baina askotan ez da erraza Santueneari dagokion kronika idaztea, lerro hauetan idazteko berriak ez baitugu izaten. Gehienetan auzoan egiten diren obrak, azken hilabeteetan Zorrotzako zubiaren konponketa... izaten ditugu hizpide. Baina, zertaz hitz egingo dugu bestela? Begibistakoa dena baino ez dugu izaten mintzagai, izan ere, Santuenea bezalako auzo

batetik ezin daiteke informazio gehiegirik lortu.

Aspaldiko kontuen ezagupena izango banu, ez nuke bi aldiz ere pentsatuko ale bakoitzean zeri buruz mintzatu. Honen konponbidea ez da batere zaila, zuetariko asko irrikitan egongo zarete aspaldiko kontuak eguneratzeko, lehen-go ohitura zaharrak gogorarazteko eta gazteoi hauek erakusteko.

Hala bada, auzotar guztion artean errazago beteko dugu gure auzoari dagokion tartetxo hau. Beraz, egin beharrekoa erraza da: Gurekin harremanetan jarri eta kontu kontari ibiliko gara.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Istripu txikia

**A**zken egunotan gure auzoan izan dugu zertaz mintzatu. Izan ere, zenbait istripu txiki izan ditugu, oso larriak ez izan arren, sustoren bat edo beste eman digutenak.

Alde batetik Oa etxeko balioaren barandila kamioi batek puskatu zuen. Dirudienez, kamioiak ez zuen plaza inguruko kurba ongi hartzeko nahikoa leku eta hori zela eta puskatu zuen barandila zatia.


Bestalde, azkenaldian eguraldia ez da lagun ona izan errepideetan dabilzanentzat eta auzoko bidea ere nahiko arriskutsua bihurtu da izotza dela medio. Gauzez botatako izotzak

direla eta hainbatek arazoak izan ditu inguru hauetako aldapak igo eta jeisteko, oso irristakorrek aurkitzen baitziren.

Eguraldiarekin jarraituz, esan behar Andatzako gailurrak elurrez zurituak ikusteko aukera ere izan dugula, baina oso denbora gutxiz gozatu dugu paisaia eder honekin. Nik uste, guztiok ere gustora pasako genukeela hiru edo lau egunez elurra egingo

balu inguru honetan, eta ez mendi gailurretan bakarrik.

Besterik gabe, elurra noiz egingo zain egon beharko dugu guztiok. Ea ba laister egingo duen.





# AGINAGA

## Berrikuntzak elizan

**Z**aharrak berri gure auzoan. Baziren dagoeneko hogeitamar urte gure auzoko elizaren zorrak ordaintzen ari ginela, aurten egin den kontu errepa-soan ordea, bukatu dugula esan digute. Gainera, gure elizak dituen bi teilatuetako txikiena ere konpontzeko asmotan omen dira.

Baina elizan izan da bestelako aldaketik. Larunbat honetan, hilak 6, proiektu berri bati hasiera eman nahi diote. Duela urte dexentetik, gabonak direla eta, urtero ospatu izan ohi da gaztetxoek elizkizun bat. Bertan, umeak izaten dira protagonistak, irakurri, abestu

eta antzerki txikiren bat ere eginaz. Oraingo asmo berri honek mota honetako meza bat ospatzea ekarriko luke, baina ez urtean behin, hilean behin baizik. Honekin, gaztetxoek eliza gertuagotik senti dezaten lortu nahi da, hilean behin bada ere.

Kexa txiki batzuk ere iritsi zaizkit ale honetan kaleratzeko. Hainbat auzotar euren zaborrak ateratzeko ere kotxeak hartu edo sekulako bidea egin beharrean aurkitzen dira, karreteratik urrun xamar bizi direnak batik bat. Zakarrontzi bat eskatzen dute baserrietatik gertuago, ingurua txukun mantentzea

Izaro Aizpurua



errazagoa suerta dadin. Eta bide ertzean bizi direnak, aldiz, argia eskatzen dute, orain ditugun farolek diskoteketako argien antza haundiagoa baitute kaleko argiena baino.

Azkenik, eta tartetxo honetako lana bukatu aurretik, esan behar Noaua!ko kolaboratzaileok ere baditugula gure kolaboratzaile partikularrak. Askotan ez da erraza izaten auzoan gertatzen denaz konturatzea; nik ordea, laguntzaile apartak ditut lana ahalik eta ondoen betetzeko. Hemendik, beraz, eskerrik asko Aginagako benetako korrespontsal **Oxkar eta M<sup>o</sup>Angelesi**.

# ZUBIETA

## Krosaren 44. edizioa

**A**urten ere heldu eta joan zaigu gure urteroko krosa. Ohi bezala, urtarrileko azken igandean ospatu zen aurtengo edizioa ere, 44 garrena hain zuzen ere. Gaur egun ordea, ez du egun honek lehen zuen

bezalako ospea, edo hori diote behintzat. Orain, agian beste era bateko ospakizunak nahia-go ditu jendeak, garaiak aldatzen baitoaz. Lehen jende gehiago etortzen omen zen, beste giro bat omen zegoen...

Kontuak kontu, goizean goizetik nabaritu genuen jende gehiago zebilela gure auzoan barna bueltaka, izan ere ez baitago kros hau baino aitzakia borobila-gorik gure auzo inguruak apurtxo bat hobeto ezagutzeko.

Eguraldia hotza izan genuen arren, zerua oskarbi izan genuen,

egunari aparteko laguntza eskainiz. Jendeak tenperatura baxuari aurre egiteko, eskularru, txapela eta bufandak jantzi zituen, motxilak hartu eta kalera irten ziren, igande eder bat pasatzeko asmotan.

Aurtengo honetan, John Brown britaniarrak irabazi zuen. Ea ba noiz ospatzen dugun euskaldun baten garaipena beti kanpokoei irabazten utzi gabe.

Bestalde, eta amaitzeko, gaur egun oraindik zenbait komunikabideetan "Lasarteko zalditegia" eta antzekoak aditzea nahikoa tristea dela uste dut. Noizbait ikasiko ote dute batzuek ongi informatzen?



Jone Aliri






## Ugarteko lokala Gorostitxo eztiolaren esku

**U**dalak 1998ko uztailaren 28an erosi zuen Ugarteko lokaleko bigarren solairua Gorostitxo Eztiola Elkartearen esku utzi du datozen 10 urterako. Hilerri berriko lanak laster hasiko dira, eta elkarte honek txabola lur horietan duenez, gaur egun egokitu gabe dagoen eraikinaren goiko solairua utziko die udalak.

Usurbilgo eztiola Ugarten egongo da laster. Erleek egindako ezti kalitatezko baldintzetan ateratzeko eta ontziratze leku aproposa zela ikusita, Gorostitxo Eztiola Elkartek Ugarteko lokala eskatu zuen. Izan ere, orain erabiltzen ari diren eztiola bota egingo dute hilerria eraikitzen hastean.

Lokala erosi zenean udal zerbitzuetarako bideratu zen, baina orain, erleek egindako-



ezti garbitu eta ontziratze helburua izango duenez, erabilpenaren aldaketa egin behar izan du udalak. Hemendik aurrera, proiektua burutu eta zuzentzea eta obrak aurrera eramatea Gorostitxo Eztiola Elkartearen esku gelditzen da.

Udalak 10 urtez lokala erabiltzeko baimena eman dio elkarteari. Epe hori amaitzean lokala udalari itzuliko zaio egindako hobekuntza guztiekin. Honen truke, elkarteak herrian sortu daitezkeen erle arazoez doan arduratzeko konpromezua hartu du.


## Artzabaletan lur zati bat erosi du udalak

**U**surbil eta Donostiako udalak Zubietako bihurguneak hobetzeko obrak zatika egitea erabaki zuten garai batean. 1997an Usurbilgo udalak Amiriko bihurgunea hobetu zuen eta Donostiakoak, berriz, Etxetxokoa. Aurten, Lizarra Berriko bihurgunea zabaltzea dagokio Donostikoari eta Usurbilgoak Artzabaletakoa konpondu beharko du.

Azken bihurgune honetako obrak egiten hasi aurretik, horko lur batzuk eskuratu ditu

udalak. Proiektuan jasotakoari jarraituz, Artzabaleta baserriari dagokion urbanizatzeko balio ez duen 31,20 metro karratuko lurra erosi du. Lur hauetan 3 intxaurren eta bi udareondo daude. Hau guztia kontuan hartuta, lur horiek erostekoan 182.890 ordaindu ditu.

Orain, Artzabaletako bihurgune honen egoera hobetzeaz Ameriko bihurgunea konpondu zuen enpresa bera, "Contrucciones Igueldo" arduratuko da.



ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Arizeta Kalea, 1  
Tlf 943 36 21 64  
USURBIL

**URTINEA  
LORATEGIA**  
*Lore eta lore landareak*  
San Esteban  
Tlf. 943 36 22 55

**ORBELDI**  
MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia  
Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako  
Zubiaurenea, 10 Tlf. 943 37 16 07  
20170 USURBIL-GIPUZKOA



## Dirulaguntzak euskarazko errotuloak jartzeagatik

**E**uskararen ordenantzako 45. artikuluan aldaketa bat egin du udalak. Aldaketa honen ondorioz elkarteek, merkatariek, aisia eta kulturakoek eta kirol elkarteek errotuloa euskaraz jartzen badute dirulaguntza bat jaso ahal izango dute. Hala ere, dirulaguntza hau jaso ahal izateko zenbait erizpide jarraitu behar dituzte.

Udal ordenantzetan dirulaguntza sistema berri bat onartu du udalak. Hemendik aurrera, euskaraz errotulo berria jartzen dutenek edo euskara aldatzen dutenek, %50eko dirulaguntza jasoko dute. Beti ere gastuak 30.000 pezeta baino gutxiagokoa izan behar du. Errotuloa jarri aurretik, testua zein den esan behar du zaiu udaleko euskara

zerbitzuari gero dirulaguntza jaso ahal izateko. errotuloetan izen eta deiturak bakarrik agertzen direnean, ordea, ez da inolako dirulaguntzarik emango.

Bestalde, euskera hutsez publizitatea egiten duten guz-

tiek, nahiz eta publizitate zerga ordaindu, dirulaguntza jaso ahal izango dute. Argitara eman aurretik froga bat aurkeztu behar zaio Euskara zerbitzuari. Dirulaguntzaren kopurua, gehienez, zergaren %50a izango da.



## Atxega jauregiko harmarriak koloreak ditu



**A**txega jauregia zahar-berritzeko lanak hasi dituzte ja eta abiada bizian ekin diote lanari. Horrenbeste urtetan bide bazterrean ukitu gabe egon ondoren, jauregi barrua konpontzen hasi dira.

Ustekabeko arazo batekin topo egin zuten hasi eta berehala: Atxega jauregiaren oinarriak alde batera mugituta zeuden. Denboraren ondorioz egurrezko oinarriak okertzen joan dira eta lur mugimenduek

gainontzekoak ere mugitzea ekarri du. Horregatik, lehenik eta behin, burdinezko oinarriak jarri dituzte berezko oinarrien azpian.

Bestalde, jauregian dagoen harmarrira gerturatu direnean ere ezustekoa eraman dute. Hasiera batean harri kolorekoa zela uste bazuten ere, zenbait kolore dituela konturatu dira orain. Dirudienez gorria, berdea eta horia izan daitezke Atxega jauregiko harmarrian agertzen diren koloreak.

## TXIMINIA ALTZARIAK

Osinalde industrialdea  
(Aizpurua autobusen aldamenean)

Tel.: 943 37 09 66

**BISITA EZAZU  
ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.  
PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.  
ESKAINNTZA BEREZIAK BETI!!**



# Mertxe Aizpurua: "Garatu behar den garaipen bat da GARA"

**U**surbilgo Zumartegi auzoan dagoen errotatiban Urtarrilaren 30ean lehen aldiz argia ikusi zuen Gara egunkariak. Jende dexente inguratu zen "erditze" gau horretara eta honelako momentu batean Noaia! aldizkariak GARAKO zuzendariarekin egon nahi izan du, Kalezarren dagoen Erreal txikiko Mertxe Aizpuruarekin. Azken asteetan izandako elkarriketa, telefono dei eta konpromezuak atzean utzita berarekin luze eta zabal hitz egin genuen egunkariak Igaran duen erredakzioan.

**Urtarrilaren 30etik herriko saltokietan dugu GARA egunkaria. Zein da hasiera honetako zure balorazioa?**

Gu pozik gaude jendeak eman dion harrerarekin eta lehendabiziko egunetan izan diren salmentekin. Gero ikusi beharko da nola finkatzen garen. Hala ere, bide onetik goazela dirudi. Jaso ditugun komentarioak benetan pozgarriak izan dira, eduki aldetik egunkari mardula egin dugula esanez zenbait eskutitz ere iritsi zaizkigu. Egun hauetan behintzat asmatu dugulakoan gaude, hainbat sektoreengana heldu baita.

**Sei hilabetetan aurrera atera den proiektua izanda, arazo eta oztopoak nonhai sortuko zitzaizkizuen ezta?**

0 zenbakian atzematen dira lotu gabe dauden gauzak eta gure benetako 0 zenbakia lehenengo alea izan da. Erredakzioari dagokionez, akats batzuk bazeuden hor, eta pixkanaka-pixkanaka konpontzen ari gara. Errotatiban ere ajuste batzuk egin behar izan ditugu. Hasierako egunetan kioskoetara ez zen ordurako iritsi, baina bosgarren egunetik aurrera goizeko 4.00etan atera izan da egunkaria errotatibatik.

**Zer kritika jaso dituzue lehen egun hauetan?**

Oraingoz jaso ditugun kritikak oso onak izan dira. Batzuek egunkaria haundiegia dela esaten digute, ez duela dena irakurtzeko



denborarik ematen. Dena den, egunkariak oso-osorik irakurtzea ez da normala izaten. Bakoitzak aukeratu behar du interesatzen zaiona, eta guk eskaintza zabala eman beharra daukagu. Bati gustatzen ez zaiona beste bati gustatuko zaio, bakoitzak bilatu behar du bere tokia. Irakurlea gure egunkarian kokatzen ari da orain, gustoko dituen sailak non dauden jakitea garrantzitsua baita. Ohitura kontua da dena.

**Normala denez irakurleak Egin eta GARA konparatuko ditu. Zeintzuk dira bien arteko desberdintasun eta parekotasunak?**

Eginetik haren zehaztasuna hartu dugu, zintzotasunez kazetaritza egiteko joera bat. Kazetaritza egiteko era mantentzen dugula uste dut. Hala ere aldaketak egon dira. GARA eta Egin zeharo desberdinak dira diseinu aldetik, hori begibistakoa da, eta diseinu horrek edukia ere baldintzatzen du askotan. Sailak ere desberdinak dira. GARAn Euskal Herritik kanpo sortzen diren albiste guztiak Mundua sailean sartzen dira... Euskal Herriko ikuspegitik egunkari bat egiteari lehentasuna eman diogu. Guk Euskal Herria nazio bat balitz bezala hartzen dugu, horrek dituen zailtasun guztiak kontutan hartuta. Askotan instituzioek EAEko datuak ematen dituztene-

an, Nafarroako edo Iparraldeko datuak lortzeko esfortzu handia egin behar dugu. Sekzio guztietan, zailtasun hauen gainetik, lehentasun hori jarri dugu, Euskal Herria naziotzat hartzea.

**GARA Euskal Herriak bizi duen itxaropenaren mezulari izan nahi duela azpimarratu izan duzu azken aste hauetan behin eta berriz. Nola lortu daiteke hori?**

Horren bukaera ez da gure esku dagoen zerbait. Helburuak bideak eginez lortzen dira eta momentu honetan bide berri bat ireki da. Euskal Herriko gizartean horrelako itxaropena sortzeak bideak erraztu ditu. Egunkariaren aldetik zer egin dezakegu? Ireki den bide berri hori, Lizarrar-Garaziko akordioei babesa eman, horren alde doan guztia lagundu eta kontra joan daitekeen guztia kritikatu.

**Egoera berri honek GARAREN garapena erraztuko du?**

Garapena erraztu dezake. Orain dela urte batzuk Eginen berrikuntza batzuk eman zirenean, ez Espainiako alderdienak bakarrik, hemengo zenbait alderdi nazionalisten mezuak kontrakoak ziren. Guzti horrek presio bat sortzen zuen, egunkaria presiopean zegoen. Momentu honetan badirudi presio hori ez dagoela



eta garapenerako presiorik gabe bizitzea hobea izaten da.

### Egin-en heriotzaren mendekua hartu da GARAREN sorrerarekin?

Seguru asko bai. Egin itxi zutenean ez zuten egunkari bat bakarrik itxi, gizarte honen zati haundi baten ahotsa ematen zuten egunkaria itxi zuten. Gizartearen zati haundi hori mututu egin nahi zuten eta alde horretatik herriak berak egin duen mendekua da. Azken finean garatu behar den garaipen bat da GARA.

### Zer eskaintzen du egunkari berri honek beste egunkariak eskeintzen ez dutena?

Informatiboki, Euskal Herrian nazionaltasuna praktikan jartzen duen egunkari ia bakarra da. Hori da gure eskeintza nagusia. Eduki aldetik, horrek sail guztiak markatzen ditu. Kiroletan adibidez, El Diario Vasco edo Correo egunkari probintzialak dira eta bakoitzak herrialdeko erreferentzia dauka. Guk sail guztietan Euskal Herriko erreferentzia dugu, ez dugu errealtaz hitz egiten, Euskal Herrian dauden talde guztien informazioa ematen dugu eta berdin gertatzen da beste sail guztietan. Euskal Herriko politikari dagokionez plus bat ematea nahi dugu, beste egunkarietan aurkitu ezin daitezkeen datuak guk ematea.

### Lehen Egin erosten zuenak orain GARA erosiko du seguru asko.

Egin erosten zuenak orain GARA erostea espero dugu. Oraingoz ditugun datuen arabera jende gehiagok erosten du eta horiek

mantentzeaz gain irakurle gehiagorengana iristea da gure helburua.

### Ezker abertzalearen egunkaria al da GARA?

Ildo editorialean, momentu honetan ez da ezker abertzaleari zuzendutako egunkari bat, bere nortasuna mantenduko du. Informatiboki, edozein irakurlek erosi ahal izateko eskeintza zabal ematen dugu, ekonomia eta kultura sailak goraipatuak izan dira adibidez. Politika aldetik begiratuta, GARA egunkaria Lizarra-Garaziko akordioaren alde dagoen edonorentzat irekita dago. Akordio horren alde dagoen edozeinek ondo ikusiko du bere burua egunkari honetan.

### Euskarak, Egin-en bezala, toki gutxi du GARAN.

Euskara mailan aurrerapen sustantziala eman dugu Egin-ekin alderatuta. Orain presentzia haundiagoa du. Euskararen egoera eta Euskal Herri osoaren egoerari begiratu behar zaio lehen-dabizi. Askotan hipokrita samarrrak gara denok gizarte honetan. Euskaraz irakurtzeko gai ez den edo zailtasunak dituen jende asko dago oraindik eta une honetan euskara hutsezko egunkaria ateratzeak egunkari horren porrota suposatuko luke. Guk orain euskarari lehentasuna emango bagenio, beste komunikabide bati miña egingo genioke edo gure porrota izango litzateke. Oraindik, tamalez, euskararen defentsa erdaraz egin behar da. Euskaraz bakarrik egingo bagenu euskaraz ez dakitenei ez litzaike zenbait

informazio iritsiko. Guk Euskal Herriko egunkaria egin nahi dugu eta Euskal Herria Portugalete da, Cascante da eta Euskal Herria Gabiria, Usurbil edo Donostia da.

### Denborarekin euskararen erabilpenean beste pausorik emateko asmorik ba al duzue?

Pausoz-pauso euskaraz gailendu egin beharko du GARAN, garatu behar dugun beste gauza bat da hori ere. Gure dinamika da sail guztietan euskara egotea, plantila horren arabera eratu dugu, sekzio guztietan baitago euskaraz idazteko gai den jendea. Honela, garrantziko albisteak euskaraz emango dira noiz-nahi. Guk ez diogu kopuruari begiratu, baizik eta presentzia duin bat izatea garantizatu nahi izan dugu. Hemendik epe batera egunkari bat euskaraz egiteko gai izatea da gure helburua eta horretan gaude. Euskal Herriko gizarte euskararekiko aurrera doan heinean, guk ere aurrera-pausoak emango ditugu. Hala ere, pentsatzen dut guk aurretik joan behar dugula.

### Hasiera batean 1000 milioi lortzea zen "Egingo dugu" kanpainaren helburua, baina 1.200 milioi bildu dira. Usurbilen ere 11,2 milioi bildu dira, helburua baino 3,7 milioi gehiago. Zer esango zenioke proiektu honetan dirua jarri duen usurbildarrari?

Eskerrak eman lehendabizi. Azken finean bakoitzak ahal zuen dirua emanez proiektu bat eraikitzea lortu dute. Momentu honetan GARA egunkaria atera da, baina hau finkatzen denean enpresakoak beste proiektuak bideratzen hasiko dira, Euskal proiektu komunikatibo baten aurrean baikaude. Nik uste harro sentitzeko modurik badagoela Euskal Herri honetan.

### Mirari bat izan da?

Bai, miraria. 1.000 milioiko erronka ordago bat izan zen. Diru asko zen eta ez dakit benetan diru hori lortu zitekeela uste zuenik bazegoen momentu hartan. Denbora gutxian 1.000 milioi lortzea mirari bat baldin bazen, 1.200 milioi lortzea supermirari bat izan da.





## D ereduaren aldeko kanpaina

**O**tsailaren 1ean hasi eta 12a bitartean zabalik dago ikastetxetan matrikulatzeko epea. Honekin batera udalak, Euskal Txokoek, Euskal Herrian Euskarazek, Lanbide Heziketak, AEKak eta Udarregi ikastolak D ereduaren aldeko kanpainari ekin diote. 3-6 bitarteko seme-alabak dituzten familiei honek dituen abantailak agertuz, D ereduari matrikulatzea aholkatzen dute.

Usurbilen ez zen inoiz honelako kanpainarik egin. Jakinaenez Udarregi ikastolak D ereduak bakarrik eskaintzen du, eta Santueneako eta Aginagako eskola txikiek ere bai. Zubietako eskola txikia da A ereduari ikasteko aukera ematen duen bakarra.

Hala ere, herrian D ereduak finkatuta badago ere, kanpainari aurrera eraman duten taldeek kezka bat zuten. "Badakigu herriko haur gehie-



nak Udarregi ikastolan D ereduari dabiltzala, baina badira ikasketak herritik kanpo egiten dituztenak. Ikastetxe pribatuetan A ereduak mantentzen dute eta guk ez dakigu kanpoko ikastetxe horietara joaten direnek zer ereduari ikasten duten".

3-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei bidalitako eskutitz horrekin, seme-alabak A ereduari hasteko asmoa

duten gurasoengana iritsi nahi izan dute. Eskutitz horretan, D ereduari matrikulatzeak etorkizunean haurrarentzat izan dezakeen garrantzia azpimarratzen da. "A ereduak ez du euskararen ikaskuntza bideragarri egiten, eta B ereduak ez du ziurtatzen. D ereduak, berriz, bi hizkuntzen jabetza ziurtatzen du, beraien dira elebidun osatuenak. Euskaraz bizitzea baita haurraren esku-bidea".

## Usurbilgo elkarten arteko I. mus txapelketa

**D**atorren otsailaren 13an jokatu da herriko elkarten arteko I. mus txapelketaren azken ekitaldia. Zortzi elkarteetako bi bikote onenak ariko dira lehia Andatzpe elkarten: Peña Pagola: **R. Izagirre / A. Matxin** eta **J. Martija / J.M. Beristain**. Andatzpe: **M. Urkia / J.M. Borda** eta **K. Landa / Pari**. Yoko Garbi: **A. Sarasola / Tolaretxipi** eta **J.R. Huici / Ifurrioz**. Eguzki: **A. Guadix / M. Guadix** eta **J.C. Gomez / Paco Navarro**. Aginaga: **R. Pikabea / R. Beloki** eta **J. Larburu / Y. Larburu**. Mahaspildegia: **Lertxundi aita-semeak**. Erredakzioa itxi dugunean zehaztu gabe zeuden oraindik nortzuk izango ziren Aitzaga eta Ibai-Ondoko ordezkariak.




### XABI ER

### EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78



### TXIRIBOGA

### TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

### JUANTXO

### Burdindegia




Kale nagusia, 10  
Usurbil

☎ 943 37 00 08



## Topagunearen I. Negu Olinpiadak

Euskara elkarte eta aldizkarien topaguneak I. Negu Olinpiadak antolatu ditu aurten eta lehen ekitaldi hau Usurbilen egingo da otsailaren 27an. Topaguneko gazte sailean dabiltzan 15-20 urte ingurukoei bideratu-tako olinpiadak izango dira hauek. Euskara elkarteetako gazteen artean ondo pasaz elkarren arteko harremana lantzea da olinpiada hauen helburu nagusia. Euskal Herri osotik 100dik gora gazte etorriko dira otsailaren 27an Usurbila eta egunean zehar joku



**P**asa den urtarrilaren 25ean gerra garaiko jaurtigailu bat aurkitu zuten Oiloki baserrian. Baserria berritzeko lanak egiten hasi zirenean, lurra mugitu eta lur azpian topatu zuten Karlistadan erabiltzen zen jaurtigailu horietako bat. 40 zentimetro inguruko luzera eta 15 zentimetroko diametroa zuen. Ertzainei deitu ondoren, hauek jaurtigailua kutxa batean sartu eta Hernanira eraman zuten han lehertarazteko. Susto ederra hartu zuten Oilokikoek.

desberdinak egingo dituzte herriko frontoian. **Noaúa!** topagunean sartuta egonda, herriko talde desberdinei, Ziortza, Gazte Asanblada... parte hartzeko deia luzatu nahi die. Izen ematea ez da taldeka egin behar. Euskara elkarte eta aldizkarien topaguneak antolatutako I. Negu Olinpiadetan parte hartu nahi duenak otsailaren 17a du **Noaúa!** bertan izena emateko azkenengo eguna. 15-20 urte dituen edonork eman dezake izena. Datorren alean emango ditugu olinpiada hauen inguruko xehetasun gehiago.



**O**tsailaren 4an egin zuten hotza koplekin berotu zuten **Udarregi ikastolako haurrek** eta **Bota Puntubako** eskean bildutakoek. Santa Ageda bezperako eskeak ez zuten etenik izan egun horretan. Arratsaldeko 15.30etatik 16.30etara ikastolako ikasleak herriko kaleetan ibili ziren bi taldetan banatuta kantua ahoan eta makila eskuetan hartuta. Ilunabarrarekin batera, berriz, **Bota Puntubak** antolatuta Santa Ageda eskea egin zen baserriaz baserri.



**A**lfabetatze taldeak bigarren aldiz antolatu duen lehiaketak badu irabazlea. Euskararen ezagutza maila nolakoa den jakiteko herriko tabernetan lau galderei erantzuteko aukera izan da azken asteetan. "Nik asmatu dut, nik ere bai, guk ez..." honelako asko entzun ditugu emaitzak jarri zituztenetik baina zozketatzen zen Antxetako afaria ez da usurbildarrentzat izango. **Aingeru Ezkerra** donostiarra izan da 2 pertsonentzako afari horren irabazlea.

**gorriti**  
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8  
TLF 943 36 27 70

20170  
USURBIL

**Urbil**

Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

01ARTZUN



## Andatza K.K.E.arekin Luz Ardidenera

**E**lurra guregana iristen ez bada gu geu joango gara elurretara. Azken urte hauetan eskiatzera joatea ohikoa bihurtu da Usurbilen. Gero eta gehiago dira Jaka edo Frantzia aldera "buelta-txo" bat egiten dutenak eta Andatza Kirol Kultur Elkarteak ere ez du huts egin urteroko eski irteera antolatzerakoan. Aurten, 45 inguru ibiliko dira Luz Ardideneko pistetan.

Elur faltarik behintzat ez dute izango. Aurreko urteetan bel-dur horrekin ibili badira ere, 1999an nahikoa elur egin du eta Luz Ardideneko pista eskiatzeko egoera ezin hobean egongo dira otsailaren 27 eta 28an.

Pasa den otsailaren 7an amaitu zen irteera honetara joateko izen emateko epea eta autobus bat betetzea lortu dute, guztira 65 pertsona joango baitira Frantzia aldera.

Ez da Andatza Mendi Elkarteak mota honetako irteera antolatzen duen lehen



aldia. Azken hamar urteetan etenik gabe egin dute eski irteera. Hala ere, azken urteetan arrakasta haundiagoa du. Duela bi urte 74 pertsona joan ziren Gavarnie aldera eta iaz izen eman zuten 87 pertsonak bi autobusetan joan behar izan zuten Baqueira Beret-era.

Aurten, ordea, ez dira hainbeste joango, aukerarik ere ez baitute eman. Agentzia batekin antolatu dute irteera eta autobus batetan sartzen den

pertsona kopurua jarri dute mugatzat. Andatzako kideen esanetan esanetan iaz bi autobus atera ziren eta ez zen oso esperientzia ona izan. "Autobus bat bete zen, baina beste erdi beteta joan zen. Horregatik aurtēn bakarra ateratzea erabaki genuen. Agentzia batekin antolatu dugu bidai eta 65 pertsonako muga jarri genuen. 45ek izena eman dutenez autobus batean joango gara denok".

## Domina ugari Usurbil Judo Elkartearentzat

**E**uskal Herriko judokarik onenak dituen taldeak, Usurbil Judo Elkarteak, dominak lortzen jarraitzen du. Urtarrilean zehar bi txapelkete-

tan aritu dira, eta orainoan ere ez dute huts egin.

Espainiako txapelketarako sektorean lau domina lortu

dituzte: gizonetzkoetan **Ibai Peñak** (-60 kg.) eta **Iker Ostolazak** (-90) urrezko dominak lortu dituzte. **Javier Giralek** (-81), berriz, brontzezko domina lortu zuen. Emakumezkoetan **Garazi Goikoetxeak** (+78) lortu zuen domina bakarra, urrezkoa.



Urtarrilaren 23-24an 17, 18, 19 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Errenterian, eta bertan domina ugari lortu zituzten: urrezkoak 17, zilarrezkoak 8 eta brontzezkoak 10. Honenbestez, berriz ere Gipuzkoako Judo Elkarerik onena izendatu zuten Usurbil Judo Elkarteak.




## Euskal Herriko sokatira txapelketa

**P**asa den urtarrilaren 30ean jokatu zen Oiardo kiroldegian Euskal Herriko txapelketan finalaren aurretik jokatu beharreko 560 kiloko bigarren eta azken jardunaldia. Bi multzotan banatuta tiraldi ugari ikusteko aukera izan zuten bertara gerturatu ziren 150 pertsonak.

Lehen multzoan Beti Gazte izan zen onena. Abadiñorekin tiraldi gogorak egin bazituen ere, Lesakako taldeak tiraldi guztiak irabazi zituen.

Bigarren multzoan, Urrestilla izan zen onena Aresoren aurretik. Saioko azken tiraldian bi talde hauek izan ziren aurrez-aurre, eta indarrak pare parean zeudela ikusi zen. Talde bakoitzak tiraldi bana irabazi zuen. Multzo honetan aritu zen Martin Maiz usurbildarra Igeldoko taldearekin, eta tiraldi bakarra irabazi zuten.

Urrestilla, Areso, Gaztedi, Abadiño, Beti Gazte eta Goiherri sailkatu dira Urrestillan jokatu den finalerako.



### OTSAILAK 13 larunbata

- Kadete mailako **eskubalo** partidua (N): **Usurbil K.E. - Leizaran**. Oiardo kiroldegian 17.00etan.
- 2. nazionalako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E. - Escolapios**. Oiardo kiroldegian 18.30etan.

### OTSAILAK 14 igandea

- Kadete mailako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E. - Almen Jakion**. Oiardo kiroldegian 10.00etan.
- Jubenil mailako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E. - Almen Jakion**. Oiardo kiroldegian 11.30etan.
- Hondartzako **futbol txapelketa** Kontxako hondartzan. **Mecarapid - Aginaga Sagardotegia**

### OTSAILAK 20 larunbata

- 2. nazionalako **eskubalo** partidua (M): **Sestao - Usurbil K.E.**. Sestaoko kiroldegian.
- 1. errejional mailako **futbol** partidua (M): **Elgoibar - Usurbil F.T.** Elgoibarko Mintxeta futbol zelaian.
- Jubenil mailako **futbol** partidua: **Usurbil F.T. - Allerru**. Harane futbol zelaian. 16.15etan.
- Kadete mailako **futbol** partidua: **Usurbil F.T. - Ikasberri**. Harane futbol zelaian. 11.00etan.

### OTSAILAK 21 igandea

- Hondartzako **futbol txapelketa** Kontxako hondartzan. **Equitativa - Aginaga Sagardotegia**.
- Nesken errejional mailako **futbol** partidua (N): **Usurbil F.T - Alde Zaharra** Harane futbol zelaian goizeko 11.00etan.
- Andatza K. K. E.ak antolatuta **mendi irteera "Aratz" mendira**. Goizeko 8.00etan irtengo dira frontoi atzetik.



## Emaitzak

### Futbola

#### Urtarrilak 30-31

Tolosaldea **1** Usurbil F.T **1** (1.R.)  
Usurbil F.T **6** San Ignacio **0** (n.)  
Usurbil F.T **2** Mundarra **0** (2.ju)

#### Otsailak 6-7

Usurbil F.T **1** Antoniano **1** (1.R.)  
Oiartzun **3** Usurbil F.T **0** (n.)  
Spor. Herrera **3** Usurbil F.T **2** (2.ju)

### Eskubaloia

#### Urtarrilak 30-31

Egia **12** Usurbil K.E. **26** (2.N.)  
Egia **20** Usurbil K.E. **27** (ju.m)  
Usurbil K.E. **13** Bera Bera **12** (ka.n)  
Egia **9** Usurbil K.E. **22** (k.m)

#### Otsailak 6-7

Usurbil K.E. **23** Deusto **24** (2.N.)  
Arrate **25** Usurbil K.E. **20** (ju.m)  
Leizaran Txiki **9** Usurbil K.E. **5** (ka.n)  
Almen **19** Usurbil K.E. **24** (k.m)

### Hondartzako futbola

Aginaga Sagar. **5** Trofeos egia **4**

### Laburdurak

**R.:** errejionalak      **ka.:** kadeteak  
**N:** nazionala        **n.:** neskak  
**ju.:** jubenila        **m.:** mutilak





Ana Orbeagoza  
Aranburu

*Ana Orbeagoza*

- Erizaina
- Bi seme-alaben ama

## Matia Fundazioa

**N**ire erizain ikasketak Bilbon egin ondoren 1979 urtean amaitu nuen karrera. Bertan egin nituen Geriatriako espezialitate ikastetako ere. Berandua-go, Bartzelonan Erizain Zuzendaritza eta Gestioa ikasten aritu nintzen.

1981 urtetik, Matia Fundazioan lan egiten dut Erizainen Zuzendari Tekniko bezala. Beste arlo batean, ere banabil, hau da Bioetika sailean. Donostiako Arantzazu ospitalean ba dago Bioetikako batzorde bat eta batzorde honek, hospital honetako, Amara ospitaleko eta Matia Fundazioko gaiak lantzen ditu.

Aldizkari honek eskaintzen didan aukerari esker, Matia Fundazioak dituen zerbitzuei buruzko datuak eta nondik norakoak emango dizkizuet jarraian.

Normalean, norbaitek adineko pertsona batekin arazoak dituenean, familiarakoaren bat ingratuta daukalako edo gure geriatriakoko hitzaldietan azaltzen delako eta abar... ikusten dugu gure inguruko gizarteak ez daukala informazio gehiegi gure zerbitzuari buruz. Eta orain esandudana ezin da ukatu, nahiz eta Donostian egon eta Usurbildik donostiara 8 kilometro besterik ez badaude ere. Gainera azken 110 urtetan hor ari da lanean Matia Fundazioa.

Bestalde, nik ikasketak egin nituenean, ez erizainek eta ez medikuek ez genuen geriatriako lanetan aritzeko interesik ikusten, baina momentu honetan, ikerketak diotenez, eta guk ikusten dugunez, gizartea gero eta zaharragoa den honetan, arlo honek gure behar haundia du, ez bakarrik osasun mailan baizik eta planifikazio, ikerketa, heziketa, balibide... eta beste hainbat beharren aurrean ere.

### Gipuzkoa eta Araba dira Estatu mailan zaharrentzat baliabide gehien dituzten herrialdeak

Matia Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuetara bueltatuz, bi zerbitzu mota eskaintzen ditugula azpimarratu behar dut lehendabizi:

1.- Osasun Zerbitzuak :

-Hospitalizazioa: 103 oherekin. Berrerabiltzaile Geriatrikoa, Zainketa Paliatiboak eta Gaixo Kronikoak, hiru gaixo

mota horiek zaintzen ditugu.

- Kanpoko Kontsultak.

- Berrerabiltzaile ambulategia: egunero 600 tratamendu eskainiz. Zerbitzu hau 5 gunetan ematen ditugu: Zarautzen, Lasarten, eta Hernanin bana eta bi Donostian. Laster beste gune bat jarriko dugu Intxaurren.

2.- Zerbitzu Sozialak :

- Ia 500 pertsona zahar ditugu gure egoitzetan. Donostian 5 egoitza gerontologiko daude, eta aurreten beste egoitza bat izango dugu Zizurkilen, lehen Fraisoro zen tokian,. Hemen beste 70 pertsona zaintzeko aukera izango dugu.

- Arlo sozial honen barnean, zerbitzu berezi bat ba dugu, minusbalia fisiko eta psikiko larriak dituzten 26 pertsona gazteentzat hain zuzen ere.

- Horrez gain, momentu honetan, eguneko bi zentro ditugu, eta laister Fraisoron beste bat izango dugu.

Gure Osasun Zerbitzuetara iristeko, Osakidetza bitartez eman behar dira pauso guztiak. Zerbitzu soziale-tarako, berriz, udaletxeko gizarte zerbitzuetatik diputaziora eta handik gure egituretara iristen dira herriarrek dituzten beharrak.

Bukatzeko esan behar dut, Gipuzkoa eta Araba direla Estatu mailan, zaharrentzat baliabide gehien dituzten herrialdeak.



## Gairik gabeko inauteri eguna

**A**zken urteetako ohitura-arekin hautsiz, aurtengo inauteri eguna ez da gai jakin batekin lotuta egongo. Otsailaren 13an gaia librea izango da. Herritarren ideiak jasotzeko tabernetan zenbait orri jarri ziren. 62 proposamen bazeuden, baina gaia aukeratzeko deitutako bilerara hiru bakarrik azaldu eta eztabaida askorik gabe gaia librea izatea erabaki zuten antolatzaileek.

Cuba festa, marrazki bizidunak, indigenak, piratak... horra hor jendeak proposatutako gaietako batzuk. Zertaz moztu zaitzketen? Aurtengoan aukera zabala duzue, otsailaren 13an egingo den inauteri festa ez baita gai konkretu batekin lotuta egongo.

Azken lau urteetan ijitoak, hippiak, zirkoko jendea eta musikariak pasa dira Usurbildik. Goizean hurrek beren moztorra prestatzeko aukera izaten zuten frontoian jarritako tailerretan. Arratsaldean, kalejira egiten zen, bakoitzak ekarritako janarekin ondo afaldu eta dantzaldiarekin inauteri eguna amaitzeko.



Aurten, ordea, ez da horrelakorik izango. Urtez urte, pixkanaka pixkanaka, jendea ilusioa galtzen joan da. Iaz ez zen kalejirarik egin, herri afarian oso jende gutxi izan zen, eta dantzaldian egon zirenak ere oso gutxi izan ziren. Urtarrilaren 27an egin zen egun hau antolatzen hasteko bilera. Zenbat jende azaldu zen? Hiru besterik ez. **Haritz Jauregi** antolatzaileetako baten esanetan azken urteetan ikusten zen joera hau. "Iaz lehenengo bilerara bat bakarrik azaldu zen. Gero, bigarren bilera bat deitu eta 7-8 per

tsona bildu ginen, baina jendea "tokea" eman zitzaialako. Aurten, berriz, hiru bakarrik joan gara bilerara".

Inauteri eguna egingo da, baina aurreko urteekin ez du zerikusirik izango. Hasteko, gaia librea izango da azken momentuko ezusterik ezean. Goizean ez da tailerrik egongo, arratsaldean kalejirarik ere ez eta ilunabarreko herri afari eta dantzaldia bertan behera utziko dira. Honen ordez, Txalaparta txaranga ibiliko da gauean eta Txatunba Benibe taldea ere bai.

**Josu Aranberri**





## Ziburuko kolegioaren aldeko hegalkadak

**Z**iburuko Euskal Kolegioak laguntza behar du. Aurreko bi urteetan Sohuta eta Urruñako ikastolei lagundu ondoren, aurten Ziburuko Euskal Kolegioaren aldeko taldea sortu da Usurbilen. "Antxeta hegal zaitez Euskal Herrian zehar" kanpaina martxan da, eta hegoaldean, 5.000 pezetako 5.000 hegalkada biltzea dute helburu, hau da, 25.000.000 pezeta.

Aurreko bi kanpainekin aldekatuta kanpaina xumeagoa izango da Usurbilen. Sohuta eta Urruñako ikastolen alde ekintza batzuk antolatu bazi-zen ere, aurtengo kanpainak hilabeteko iraupena izango du Ziburuko Kolegioaren aldeko Usurbilgo taldeko kideen esanetan, Sohutaren kanpainan 1.000.000 pezeta atera zen, 1.400.000 pezeta Urruñakoan, eta Zibururako otsailean zehar

500.000 pezeta lortzeko helburua jarri dute.

Antxeta kanpaina Ziburun Euskal kolegio bat finkatzeko helburuarekin sortu da. Azken hamabost urtetan, Seaskak Bigarren mailako ikasleentzat (bigarren zikloa), kolegio bakarra izan du: Kanboko Xalbador. Kostaldekoek, Zuberokoek Kanbora joan behar zuten euskarazko irakaskuntza jasotzera. Hau ikusita, aurtengo ikasturtean Ziburun bigarren Euskal Kolegioa ireki dute. Kostaldean kolegio hau da egun euskarazko irakaskuntza normalizatua eman dezakeen irakaskuntza egitura bakarra, eta gaur egun 75 ikasle ikasten dute bertan. Hala ere, hiru urtetan 110 ikasle gehiago izango dituela aurreikusi dute.

Guzti hau kontutan hartuta, Ziburuko kolegioaren etorkizua

na ez da oso argia. Marinel eskola zaharra bi urterako alokatua dute eta urteko 4.000.000 pezeta ordaindu behar dituzte. Horrez gain, aurtengo ikasturtean segurtasun mailan 12.500.000 pezetako kostua izan dute eta datorren urterako egin beharreko konponketetan 2.500.000 pezeta gastatu beharko dituzte. 2000/2001 ikasturteko eraikuntza hau erosteko 52.500.000 pezeta beharko dituztela aurreikusita, 75.500.000 pezetara doa Ziburuko Euskal Kolegioaren proiektuaren kostua.

### 5.000 pezetako hegalkadak erosi daitezke


Horregatik, proiektua gauzatzeko laguntza eske datoz. Antxeta, itsas bazterreko txori miresgarria, Ziburutik Euskal Herrian zehar bultzatu nahi dute eta hegalkada bakoitzeko jendearen laguntza eskatzen dute. Hemendik urte batzuetara Antxeta hori bizirik egon dadin, 5.000 pezetako 5000 hegalkada beharko dira.

Zuk ere laguntza eman dezakezu. Joxe Mari Irazusta edo Joseba Berriozabalekin kontak-tuan jarri eta beraiek emango dizkizute argibide guztiak. Bestela, Euskadiko Kutxako 3035 0059 87 0591063721 kontu korrontean 5.000 pezeta sartu eta froga agiria aurreko bi pertsonetako bati eman diezaiokezu.



Urruñako ikastolaren alde festa eta guzti egin zen. Ziburuko euskal kolegioaren aldeko kanpaina, ordea, ez da honelako jaialdirik egingo

Josu Aranberri



Igandetan ganba-ziri mundialak!



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA



TEL. 943 36 61 97



## Bota bertsoa

### Euskal Herriko ohiturak

**Dantza** dugu gaitzat hartu, ta arin-arin ausartu, makil dantzakin ta zahagiakin porrusaldan sartu, bakalaoa da altxatu, ta nahi gaitu menderatu ez al da hobe bakailoa jan ta gero dantzatu?

Ohiturari jarraituta festak ezin ahaztuta, **oilasko biltzaileen** ohitura hain zaharra deguta; sarritan da gertatuta, asko ikusi ditut ta oilasko eta konejoik gabe mozkorra bilduta.

Sukaldean zuen babes, **tertulia** zen izenez, gaurko egunean kaja tonta hoi jarri zaigu aurrez; sartu zaigu derrigorrez, programa denak aldrebes, gaur telebista ugari eta tertuliarik ez.

**Jazkera** gaitzako daukat, brusa beltza ta albarkak, ta artilezko azpantartzarrak bestitzeko hankak, mila arraidun prakak, ta gantzontzilu luxaxkak, ta ez gaur egun aintzakotzat guk ditugun markak.

Egilea: Bota punttuba

Doinuak: "Aizak hi mutil mainontzi"

## Lehiaketa



**Mozorrotuta badaude ere, esango al zenizkiguke argazkian dauden bosten izenak?**

**Asmatzaileen artean Antxeta tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.**

Ez zarete gutxi izan Agerialdeko neska-mutil hauen izenak eman dituzuenak. 85-86 ikasturtean O.H.Oko 8. mailan ibili zirenak ziren argazkian zeudenak. Hona hemen argazkian daudenen izenak: **Ignacio Roteta, Sergio Luengo, Mikel Salinas, Marcos Jimenez, Leandro Utrera, Juana Utrera, Susana Gonzalez, Pilar Jimeno, Silvia Ruiz, Belen Rodriguez, Ricardo Torres, Isabel Hernandez, Maribel Torres, Oscar ponga, Conchi Olasagasti, Isabel Casado, Jose Luis Martin eta Jose Luis Rodriguez.** Hauerako bost izen asmatu dituzuenak asko izan zarete, baina oraingoan **Maddi Garmendiak** irabazi du Patrienea tabernako bi lagunentzako afaria. Zorionak!

**IPOTX**  
  
**EDARITEGIA**

Galtzaragaina 6 ☎ 943 36 07 36



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburukoen dastapena
- Ogia eta kafea

3.675 pta. (pertsonako)

**SALIDA**  
**ILEAPAINDEGIA**

Solarium zerbitzua

Kalezar

☎ 943 37 29 52



## OTSAILAK 12 ostirala

- Udarregi ikastolan matrikula-  
tzeko epea amaizten da  
egun honetan. Ordutegia:  
goizez 10.00etatik 11.00etara  
eta arratsaldez 15.30etatik  
16.30etara.
- Goizeko 11.00etan hasita  
Udarregi ikastolako ikasleek  
**inauterietako jaialdia** eskaini-  
ko dute herriko frontoian.

## OTSAILAK 13 larunbata

- Inauteri eguna.** Aurten gaia  
librea izango da eta antola-  
tzailaiek arratsaldean mozorro-  
tuta agertzea gomendatzen  
dute. Gauean **Txalaparta txar-  
anga** ibiliko da herriko kalee-  
tan eta frontoian **Txatunga**  
**Benibe** taldearen tanbor  
hotsa entzun ahal izango da.

## OTSAILAK 15 astelehena

- Euskal Herria askatu!**-ren kon-  
zentrazioa arratsaldeko  
20.00etan errotondan.

## OTSAILAK 20 larunbata

- Bota Punttubak** antolatuta  
**bertso afaria** izango da  
Mahaspildegia elkartean.  
Afarria 20.30etan hasiko da  
eta **Aitor Mendiluze**  
Gipuzkoako txapelduna eta  
**Unai Iturriaga** Araba-Bizkaiko  
azpitxapelduna ariko dira ber-  
tsotan. **Sarrerak Txiriboga**  
**tabernan** ditzue hilaren 18a  
bitartean 2000 pezetaren  
truke.

## OTSAILAK 22 astelehena

- Euskal Herria askatu!**-ren kon-  
zentrazioa arratsaldeko  
20.00etan errotondan.

## LANPOSTUAK


- ✓ **Etxeko lanak egiteko eta bi  
neskato zaintzeko,** kotxea  
duen **neska euskaldun bat  
behar da.** Ordutegia: astegu-  
netan 8.30etatik 20.30etara  
eta larunbatetan 8.30etatik  
14.00etara. Deitu 361195 (M<sup>re</sup>  
Jesus) edo 929 458918 (Mikel).
- ✓ **Neska euskalduna eskaintzen  
da lanerako.** Etxekolanetan,  
eta umeein esperientziadu-  
na. Zortzi urtetan kamarera  
lanetan ibilia. Kotxearekin.  
Deitu 943-593122 edo 943-  
300917 telefonora.
- ✓ **Musika, dantza, antzerkia eta  
zaharberrikuntza** arloetan  
espezializazio ikasketak egite-  
ko **bekak** eman eta lehen  
daudenak luzatzeko deialdia  
egin du Foru Aldundiak.  
Eskaera egiteko epea martxo-  
aren 12an amaizten da.  
Informazio gehiago G.A.Oko  
16. zenbakian.

- ✓ Astigarrako udalean **kultura  
teknikaria eta hizkuntz norma-  
lizatzaile bat behar da.** Eskiera  
egiteko epea otsailaren 26a.

## OHARRAK

- ✎ **Pisu bat alokatu nahi nuke**  
Usurbilen edo Santuenean.  
Deitu 943-370346 telefonora  
eta Jabigatik galdetu.
- ✎ **Ford Transit (modelo zaharra)**  
merke **saltzen dut.**  
Interesatuta bazaude deitu  
gauean 943 370779 telefono-  
ra (Patxi).
- ✎ **Baserri bat erosiko genuke.**  
Deitu 943 371793 (Izaskun).


## KORRIKA KULTURALA



Badator 11. korrika.  
Martxoaren 28an, Donostian  
amaitu aurretik pasako da  
Usurbildik. Korrika etorri bitar-  
tean ordea, hainbat ekitaldi  
antolatuko dira hilabete  
hauetan. Korrika batzordea  
sortu da ja eta asteazkene-  
tan 19.30etan egiten dute  
bilera. Korrika etorri bitartean  
egitaraua finkatzen ari dira.

Lehenengo ekitaldiak:

- ☐ **Inauteri eguna** otsailaren  
**13an.** Txalaparta txaranga  
eta Txatunga Benibe tanbor  
joleak. Inauteri batzordeak  
antolatuta.
- ☐ **Bertso afaria** Mahaspildegia  
elkartean otsailaren 20an.  
**Aitor Mendiluze** eta **Unai**  
**Iturriaga** izango dira bertsola-  
riak. **Sarrerak Txiriboga** taber-  
nan egongo dira otsailaren  
18a bitartean. Antolatzaila:  
**Bota Punttuba bertso eskola.**





Otsailaren 16an hasi eta otsailaren 19a  
bitartean "Sartu mentura zoragarri  
honetara" erakusketa ibiltaria Usurbilen  
izango da, Udarregi ikastolan hain  
zuzen ere. Ez da ohiko erakusketa bat,  
Hegoaldeko herrien bizipenak hurbiletik  
ezagutuz eta Amerika eta Afrikako  
herrien bizimodu desberdinak agertzen  
dira. Ahotsik gabekoen "ahotsa" izan  
nahi du erakusketa honek.  
Ordutegia: 17.00etatik 19.00etara





Oparitu Noaua! guztiak  
koadernatuta!!!



- 1998ko aleak pilatu. Aldizkariaren bat falta baduzu eskatu gure egoitzan.
- Noaua! Kultur Elkarteko** egoitzan, Laurok edo Lizardi liburudendan eskatu aurtengo azala. Bazkide bazara doan duzu. Ez bazara, 500 pzt. ordaindu behar duzu.
- Bi liburudenda horietan, koadernatzeko esan eta 1.500 pzt. kostako zaigu denoi.
- 1996-97ko liburukia osatzeko aukera berriro eskaini nahi dugu, norbaitek nahi izan ezkeru.
- Eskaintza hau Aste Santuak bitartean luzatuko dugu.



## BAZKIDE TXARTETEA

5000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_

1. Abizena: \_\_\_\_\_

2. Abizena: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_


Tfnoa: \_\_\_\_\_

Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**435**

**bazkide ditu Noaua!k.**  
**Zu ere egin zaitez**  
**bazkide**





# Udarregi Ikastola



PARTAIDE  
Ikastolak




**2tik 16  
urtetara**

**Haur Hezkuntza  
(2-6 urte)**

**Lehen Hezkuntza  
(6-12 urte)**

**Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza  
(12-16 urte)**



**Matrikulazio epea:**

**otsailaren 1etik**

**otsailaren 12ra**

**Ordutegia:**

**Goizez, 10etatik 11etara**

**Arratsaldez, 15.30etatik**

**16.30etara**

**☎ 943 36 12 16**